

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### PEÑACERRADA-URIZAHARRA UDALA

#### **Udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren hasierako onespena**

Udalbatzak, 2023ko urriaren 10ean egindako osoko bilkuran, udal jabari publikoaren erabilera pribatiboagatiko edo aprobetxamendu bereziagatiko tasak arautzen dituen hurrengo ordenantza fiskala onartzea erabaki du.

Espedientea jendaurrean egongo da hogeita hamar egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek egoki iritzitako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten epe horretan.

Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat jotzea. Halakorik balego, horri buruzko beste erabaki bat hartzea.

Hori guztia argitara ematen da Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19. artikuluan xedatutakoa betez.

Peñacerrada-Urizaharra, 2023ko urriaren 11

*Alkatea*

*JUAN JOSÉ BETOLAZA PINEDO*